

tución, que tiene su última manifestación en el inmediato futuro, dado el muy próximo traslado a la nueva “casa” de Miramón, recientemente inaugurada.

Decía en la apertura de estas páginas que Rosa Ayerbe ha reparado con estos trabajos una cierta deuda que tenía con la institución estudiada, al lograr equilibrar el insuperable conocimiento de la misma vista desde dentro y el que proporciona el tratamiento ofrecido a través de los largos artículos y la monografía objeto de este comentario. Creo, sin embargo, que otros frutos que Rosa Ayerbe puede proporcionar a la historiografía guipuzcoana, en general, y a la de las Juntas, en particular, siguen estando en estado latente o potencial. Será cuestión de tiempo, pues la dedicación y atención a esta temática van a seguir estando presentes en su ya larga labor de historiadora, imputable a lo temprano de su iniciación, por lo que esperamos pueda seguir teniendo continuidad en aportaciones como las traídas a este comentario.

Jon Arrieta Alberdi



BIDADOR GONZÁLEZ, Joxemiel

Dantzaren erreforma Euskal Herrian

Bilbao : Bilboko Udala, 2005; 570 p. ; 21 cm. - ISBN 978-84-88714-82

Liburu hau Bilboko Udaleko Kultura Sailak antolatutako Miguel de Unamuno seigarren Saiakera Lehiaketaren irabazlea dugu. Izenburuak agian azalpena behar du, eta liburuaren hasieran egileak ematen digu: aipaturiko *erreforma* honek Peter Burkek bere *Popular Culture in Early Modern Europe* obra famatuan kultura herrikoiaeren erreformaren kontzeptuaren barnean sartzen da. Egile honen arabera, hots, Modernitate berantiarrean klase altu eta baxuen kulturak bereziki bereiztu ziren, eta klase menderatzaileak saiatu ziren haien kultura inposatzen eta herriko kultura erreformatzen. Liburu honetan, beraz, erreforma horren alde bat, dantzarena, eta Euskal Herriari dagokionez azaltzen zaigu.

Lehendabiziko bi kapituluetan XVI. mendetik XX. mende arteko datuak aurkitzen ditugu; debekuen zerranda luzea XVI. mendetik XVIII. arte lehenengoan, eta mugimendu misionalaren azken astinduak eta euskal berpizkundea zenbait manifestazio-literatura foruzalea, lehen PNVko jarrera, Txistularien Elkarteko lehen aldia eta lehendabiziko talde koreografikoena- XIX. eta XX. mendeetan bigarrean.

Datu-mordoak ekartzen ditu Bidadorrek, eta hagitz interesgarriak franko, batere anekdotikoak ez baitira. Horietako asko ezezagunak edo oso gutxi ezagunak izanik, anitz pertsonaia nor bere garaian eta giroan hobeki ulertzeko parada ematen digu. Zentzu honetan, lan ikaragarria egin du egileak, eta hori da ene ustez liburu honetako zatirik garrantzitsuena. Hala ere, bereziki zati honetan datuak askotan biluzik agertzen zaizkigu, batzuetan azalpenek ezinbestekoak diruditen arren. Hemen ez da azaltzen ezta, adibidez, nola euskal dantza herrikiok hainbeste aldiz desonestotzat joak Lancreren garaitik (eta harrigarria da tamaina horretako figurarik ez aipatzea), batbatean, euskal berpizkundearekin batera onestotasunaren epitome bihurtu ziren.

Batzuetan, gainera, liburuaren helburua ez zaigu oso argi gelditzen: apaizei egingdako debeku eta ohartzarapenak jeltzaleen jarrerarekin nahasten dira, adibidez, azalpen handirik gabe, eta askotan badirudi kleroaren egoera bera izenburuko erreforma baino inportanteagoa dela egilearendako.

Hirugarren kapitulua, ene ustez, interesgarrienetarikoa da, eta Larramendi eta Mendibururen arteko eztabaida kontatzen zaigu. Interes handiko eztabaida da dantzei buruzko bi josalagunen ideia ezberdinen norgehiagoka, eta dudarik gabe dokumentazio arras interesgarri eta neurri handi batean ezezagun honetan bere giroan dugu Bidador. Irakurleak, hala ere, suposatu beharko du guzti hau, garrantzi hori zertan dautan aipatzen ez delako.

Laugarren eta bosgarren kapituluaren izenburua interesgarria da oso. Izan ere, *herri misionestaren katarsia* edonoren jakin-nahia pitz dezake, eta hasierako orrialdeak zentzu horretan dabilta; hala ere, berehala konturatzeko gara sermolari batzuen biografiek eta obren analisiek betetzen dituztela. Datuak, hala ere, ez daude ez analizatuta ez konparatuta, pilatuta baizik. Egile batzuen kasuetan, gainera, ez dago oso garbi Euskal Herriarekin zuten erlazioa, hala nola Cadizko Diego José edo Santanderko Migel. Berriro hemen datuak balio handikoak dira, eta bereziki hemen ez dago oso argia egilearen helburua benetan zein den: dantzari buruzko erreforma ala, kasu honetan, euskal literaturaren adar bat lantzea.


Seigarren kapituluak, bukatzeko, Iztuetaren *iturriak eta ekarpena* du aztergai. Euskal dantza zale guztiek soberan dute, noski, zaldibiarren berri, baina euskal dantzetaz ezjakinak ziur aski bere garrantziaren aurkezpen baten falta sentituko du. Eta berriro ere hemen aurkitzen duguna ez dator bat, ene ustez, izenburuarekin: agertzen diren egile batzuk –Feijoo, Sorregieta, Egaña, Humboldt...– ez daude Iztuetaren liburuan aipaturik (ezta, kasu batzuetan, egileak eskaintzen diguten Iztuetaren liburutegiko zerrendan ere) baina *Gipuzkoako dantzak* liburuan agertzen diren beste batzuk –Erro, adibidez– ez dugu Bidadorren liburuan aurkituko. Iztuetaren iturritzat jotzeko ez dakigu batzuetan zertan oinarritzen den egilea (Garmendia Arruabarrenak, kasu, don Preciso edo Rousseauarekin frogatu zuen moduan Bidadorrek aipatzen ez duen artikulua ezagun batean). Adierazpen batzuk, beste alde batetik (“ez dirudi testuan kontraesanik gertatzen direnik, nahiz hala irudi dezakeen zenbaitetan”) sobera ausartak dira nere aburuz.

Orokorrean, irakurleak beste gauza baten falta ere sentituko du: ondorioen kapitulu batek liburua laburbildu eta borobilduko luke izenburuarekin bat etortzeko, koherentzia eta zentzua emanez. Bukaera, bestela, garrantz agertzen zaigu eta hainbeste datu eta lanaren zergatia agian erabat ulertu gabeko sentsazioa izango dugu. Eta ez da egileak ez dirudiela gai lan finagoa, zentzu horretan, egiteko, bere burua berak mugatzen duela baizik. Bibliografia, beste aldetik, ikaragarri zabala eta alde ezberdinetakoa izanik ere, ez dirudi erabat gaurkoturik, kontutan hartuta azken bost edo sei urteotan gai honi buruzko zenbait ikerketa karrikaratu direla. Eta, okerrean nire ikus-

puntutik, ez da epigrafe propio batean agertzen. Ene ustez, horrela izanik, eta zer esanik ez alor ezberdinetan agertuz gero, atal horrek bakarrik justifikatuko luke liburua-
ren argitalpena.

Laburbilduz, beraz, euskal dantzaren historiako liburu ezinbesteko baten aurrean gaude, bere 570 orrialdeetan Joxemiel Bidadorrek kalitatezko datu kopuru ikaragarria ematen baitigu. Liburua borobiltzeko, hala ere, beste gauza batzuk eska dakizkioke: interpretazio sakonagoak, egungo sortu diren eztabaidetan parte hartzea, bibliografia modu sistematiko batean agertzea, eta, zergatik ez, gure herrian tamalez hain arrunta den nazioarteko korrontetik kanpo ez gelditzeak beteko lukete egilearen ahalegin ika-
ragarri hau.

Karlos Sanchez Ekiza



ELLIOTT, John H.

Empires of the Atlantic World. Britain and Spain in America, 1492-1830

New Haven/London : Yale University Press, 2006. - xxi + 546 or. : ir. ; 25 cm. - ISBN (10): 0-300-11431-1. ISBN (13): 978-0-300-11431-7

Imperios del mundo atlántico. España y Gran Bretaña en América, 1492-1830

Madrid : Taurus, 2006. - 864 or. : ir. ; 24 cm. - ISBN (13): 978-84-306-0617-7. ISBN (10): 84-306-0617-3

John H. Elliott-ek ez du aurkezpenik behar, aspalditik baitabil Aro Berriko historiari famatuaren artean. Penintsula Iberiarrean hispanista bezala ezagutzen badugu ere, eta bere ikerketak inperio garaiko Espainian oinarritu baditu ere, Europako historian ongi jantzitako gizona dugu dudarik gabe. Hona ekartzen dugun liburu berri hau Espainiak eta Britainia Handiak Amerikan sortu zituzten inperioen historia alderatua egiteko saiakera da. Hau ez da dokumentu-ikerketaren sintesi liburu baizik, gaurdaino gaiari buruz argitaratutakoaren sintesia alegia. Idazleak bi inperioak alderatzen ditu sortu zirenetik hautsi ziren arte, hau da, bertara iritsi eta lekutu zirenetik bertako biztanleek burujabetasuna lortu zuten arte.

Bi inperioen bilakaerak ezberdintasun handiak izan zituzten baina baita antzekotasun handiak ere, nahiz eta gure ustez konparaketa hein batean artifiziala izan. Aldez aurretik, biak eremu geografiko konkretu bateko baliabideak eta zibilizazioak menperatu zituzten bi inperio-eredu dira, baina baldintzak eta bilakaerak oso bestelakoak izan ziren. Horrelako historia alderatu bat egiteak ariketa espekulatibo bihurtzeko arriskua du. Liburua irakurrita askotan sortzen zaigun galdera hau da: zer azaldu nahi du idazleak? Nahiz eta autoreak konparaketa bat osatu nahi duela hasiera hasieratik iragarri, konparaketa baino bi ereduaren analisia ematen du gehien bat. Bartzuetan autoreak pisu gehiegi ematen dio narrazioari; hau da, sintesiak eta analisiak